

Bingen Zubiarrain Lasa

B maila • 2 aipamena

Bingen Zubiarrain Lasa naiz, 15 urte ditut, olaberritarra. San Benito Ikastolako ikaslea naiz DBH 3. Mailan. Nire guraso eta arrebarekin bizi naiz, maskotarik izan ez arren, aurrera begira txakur bat izatea gustatuko litzaidake. Nire afizioen artean, dantza eta atletismoa daude; Oin Arin dantza taldea eta Txindoki atletismo taldean praktikatzen ditut hauek.



NEGUKO AZKEN HOSTOA

Lau gurpildun autoan
haizeak gorputz eta arima
bortitzki astintzen dizkit,
ortzia lurrera erori balitz bezala.

Neguaurren urrutiko oihuak
azala uzkuratzen dit
baina udaberriko laztanek
taupadak baretzea lortzen dute.

Atetik sartu orduko
zure usaina nabari dut,
odolaren arimarekin batera.
Bat-batean tristura itsaso batek harrapatzen nau.

Hemen ez zaudela oharturik
jausitako negar malkoak
ni itotzen saiatzen dira
eta nire zainak odolhustutzen.

Pareten auka jotzean
odol arrasto gorriek jarraitzen naute.
Zure taupadekin batera
bizitzeko gogoak joan zaizkit.

Zure ahotsa, laztanak, usaina...
ondoan edukiko ez ditudala jakiteak
beira merkea bezala apurtzen nau.
Nire alaitasunetik, elurraren antzera erortzen naiz

Neguko azken hostoa bezala
joan zara betiko.
Hegaka eraman zaituen haizeak
bakardade pusketak ekartzen dizkit.